

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

337/2021 Foru Agindua, irailaren 9koa. Deialdia, Lurralde Orekaren Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren buruaren lanpostua (1005.001 kodea) izendapen askearen bidez betetzeko

Lurralde Orekaren Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren buruaren lanpostua (1005.001) hutsik dagoenez gero, Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuak, 2021eko abuztuaren 4ko idazki baten bidez, eskatu zuen lanpostu hori bete zedila, eta, beraz, lanpostu hori betetzeko deialdia egitea erabaki da.

Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak 46.1 artikuluan ezartzen du funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak lanpostuen zerrendetan ezarrita dagoenaren arabera bete behar direla, lehiaketa eta izendapen askeko sistemen bitartez.

Arabako Foru Aldundian indarrean dagoen lanpostu zerrendak xedatzen du Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren buruaren lanpostua Euskal Administrazio Publikoetako karrerako funtzionarioek bete behar dutela, izendapen aske bidez.

Aztertu dugu Kontuhartzaitza eta Kontrol Zerbitzuak Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontua Gauzatzeari buruzko Foru Arauaren arabera emandako 00000175 zenbakiko ekonomia eta arau kontroleko txostena.

Bat etorri honako hauetan ezarritakoarekin: Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretua, zeinaren bidez funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri baitziren, eta ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretua, zeinaren bidez Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi baitzen,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Deialdia egitea, Lurralde Orekaren Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren buruaren lanpostua (1005.001 kodea) izendapen askearen bidez betetzeko.

Bigarrena. Onestea deialdia arautu behar duten oinarriak, zeinak jasota baitaude foru agindu honen eranskinean.

Hirugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen erakundearen beraren aurrean, bat etorri Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan eta Administrazio Prozedura Erkidearenaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 9a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR



ERANSKINA

LURRALDE OREKAREN ZUZENDARITZAKO AHOHKULARITZA JURIDIKOKO ZERBITZUAREN BURUAREN LANPOSTUA (1005.001 KODEA) IZENDAPEN ASKEAREN BIDEZ BETETZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK**LEHENENGOA.- DEIALDIAREN XEDEA.**

Deialdia honen xedea da Lurralde Oreka Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren buruaren lanpostua (1005.001 kodea) izendapen askearen bidez betetzea.

BIGARRENA.- LANPOSTUAREN DESKRIBAPENA

Sailkapen taldea: A
Sailkapen azpitaldea: A1
Destino osagarriaren maila: 28
Berariazko osagarria: 47.710,35 euro
Destinoa: Gasteiz
Dedikazioa: eskusiboa
Prestasuna: 60 ordu
Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe

HIRUGARRENA.- BETEKIZUNAK

Euskal Administrazio Publikoetako karrerako funtzionarioa izatea; A titulazio taldekoa eta A1 azpitaldekoa eta administrazio bereziko eskalako edo horren baliokidekoa izatea, bat etorriz Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan xedatutakoarekin, eta Zuzenbidean lizentziaduna edo graduduna izatea eta B gidabaimena edukitzea.

LAUGARRENA.- ESKABIDEAK

Interesa dutenek bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari zuzendu behar dizkiote eskaerak, eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu, edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan xedatzen dituen bideetako edozeinetatik. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaera horretan datu pertsonalez gain honako hauek ere jakinarazi beharko dira:

- A) Ikasketa tituluak.
- B) Nola herri administrazioan hala enpresa pribatuan izandako lanpostuak.
- C) Egindako ikasketak eta ikastaroak eta dakizkien hizkuntzak.
- D) Izangaia egoki irizten dien bestelako merezimenduak.

Horrekin batera, eskatutako baldintzak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agiriak aurkeztu behar dira.



BOSGARRENA.- EBAZPENA

Izangaiek aurkeztutako merezimenduak aztertuta, Lurralde Orekaren Zuzendaritzak izendapen proposamena egingo dio bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari.

Izangaiei arteko inor lanposturako egoki jotzen ez bada, deialdia bete gabe utz daiteke.

Esleipena bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak egingo du, foru agindu bidez.

SEIGARRENA.- AURKA EGITEA

Oinarri hauek, deialdia bera eta horien ondorio diren administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasu eta moduetan.